



**Arartekoaren gomendioak eta
iradokizunak diru-sarrerak bermatzeko
errentaren eta etxebizitzarako prestazio
osagarriaren inguruan,
2020. urtean zehar**

aRarteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

AURKIBIDEA

Alderdietako batek eskatuta irekitako kexa-espeditentak

1. Desadostasunak diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioan aitortutako zenbatekoarekin	5
1.1. <i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 7koa</i>	
1.2. <i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 8koa</i>	
2. Diru sarrerak bermatzeko errenta ukatzea	6
2.1. <i>Diru sarrerak bermatzeko errenta ukatzea Lanbideko bulegoak emandako informazioan gabeziak daudelako</i>	6
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko otsailaren 25ekoa</i>	
2.2. <i>Diru sarrerak bermatzeko errenta ukatzea araudia modu estentsiboan interpretatzeagatik</i>	6
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko irailaren 28koa</i>	
3. Prestazioak iraungitzea eta etetea	7
3.1. <i>Ibilgailu bat dohaintzan jasotzeagatik iraungitzea</i>	7
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 13koa</i>	
3.2. <i>Iraungitzea legezko hutsune baten ondorioz araua interpretatzean desadostasun bategatik</i>	7
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko abenduaren 18koa</i>	
3.3. <i>Desadostasuna eduki ekonomikoko eskubide bat baliatu izanaren betekizuna interpretatzean</i>	8
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko ekainaren 5ekoa</i>	
3.4. <i>Desadostasuna bizikidetza unitate bat osatzen duten familiako harremanen edukiari buruzko interpretazioan</i>	8
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko ekainaren 24koa</i>	
3.5. <i>Lortu ezinezko dokumentu eskaerak</i>	9
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko uztailaren 14koa</i>	
3.6. <i>Akatsak aurkeztutako dokumentuak interpretatzean</i>	10
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko ekainaren 17koa</i>	

4. Diru sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren bidegabeko prestazio ekonomikoak erreklamatzeari buruzko dokumentazioa eta betekizunak.....	11
4.1. <i>Etxebizitzari buruzko dokumentazioa eta betekizunak.....</i>	<i>11</i>
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko urriaren 22koa</i>	
4.2. <i>Premiamendu bidean jasotako prestazioen erreklamazioa: jakinarazpen akastuna</i>	<i>11</i>
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko martxoaren 9koa</i>	
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 8koa</i>	
4.3. <i>Jasotako prestazioak premiamendu bidean erreklamatzeari buruzko gabeziak iraingitze ebazpenetan jasotako informazioan.....</i>	<i>13</i>
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko otsailaren 11koa</i>	
4.4. <i>Alokairua ordaintzen dela justifikatu delako bidegabeak ez diren etxebizitzarako prestazio osagarriagatik ordaindutako prestazioen erreklamazioa.....</i>	<i>14</i>
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 14koa</i>	
4.5. <i>Erreklamazio ekintza preskribatzea</i>	<i>14</i>
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko irailaren 24koa</i>	
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko irailaren 30ekoa</i>	
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 20koa</i>	

Gomendio Orokorrak

1. Arartekoaren 3/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko ekainaren 12koa.	16
<i>Gizarte-larrialdietarako laguntzen bateragarritasuna diru-sarrerak bermatzeko errenta eten eta iraingitzearekin</i>	
2. Arartekoaren 1/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko maiatzaren 13koa	17
<i>Prestazio ekonomikoen titularra izateko, jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikorik ez izatearen ziurtagiria aurkezteko eskakizunaz hausnartu behar da</i>	

Ofiziozko jarduerak

Diru sarrerak bermatzeko errenta iraingitzeko prozeduraren bermeak, lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesuetan parte hartzea ez onartzeagatik edo enplegu bati uko egiteagatik.....	18
<i>Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 7koa</i>	

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ETA ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIAREN INGURUAN, 2020. URTEAN ZEHAR

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketa dela eta, agiri honetan jasota daude Arartekoak 2020. urtean Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari (lehen Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) egin dizkion gomendio eta iradokizunak –Arartekoaren web orrian argitaratuak–. Guztira, 19 gomendio eta iradokizun dira. Horietatik guztietatik, 2 onartu dira, 3 erantzunaren zain daude eta 12 ez dira onartu. Beste bitan, zehaztu beharra dago: Arartekoaren 2020ko ekainaren 24ko Ebazpenari buruz (3.4 atalean), erantzun digute etorkizunera begira aintzat hartuko dutela; ofiziozko gomendia dela eta (2020ko maiatzaren 7ko Ebazpena, lanpostu baterako langileak hautatzeko prozesuetan parte hartzeari uko egiteagatik edo lan bat ez onartzeagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta amaitzeko prozeduran dauden bermeei buruzkoa), dagokion epigrafean adierazi dugunez, Lan eta Enplegu Sailak oraindik ez du argitu bere iritzia. Horrez gain, bi gomendio orokor egin dira.

Bestalde, **prozedura sinplifikatu bidez** 49 espediente bukatu dira. Prozedura hori erabiltzen da litis-a Arartekoaren ebazpenen xede izan duten espedienteetan eta erakunde bietako langileen artean eztabaidatuak izan direnetan, Lanbidek Arartekoaren oharrak eta iritziak onartu ez arren. Desadostasunak sortzen dituzten espediente horiek aurten bukatu dira, eta honakoen ingurukoak izan dira: ohiz kanpoko diru-sarrera gisa mailegu bat kontuan hartzea, jatorri herrialdeko ondasunen ziurtagiri bat aurkezteko betekizuna, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun izateari utzi zioten pertsonen zorra betearazpen bidera bidaltzea, zorra zatikatzea, EAetik jakinarazi gabe egindako irteerak edo diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzea etxebizitza eraginkorra ez egiaztatzearen eskatutako poliziaren txostenaren arabera.

Alderdietako batek eskatuta irekitako kexa-espeditentak

1. Desadostasunak diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioan aitortutako zenbatekoarekin

1.1. Lanbidek erabaki zuen diru sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa mantentzea herritar bati, nahiz eta behar bezala jakinarazi zion organismo horri garaje plaza bat alokatzetik eskuratutako diru sarrerak jasotzeari utzi ziola. Arartekoak emandako lankidetzaren eskaerari emandako erantzunean, Lanbidek erakunde horri jakinarazi zion kexagilearen diru sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa aldatuko zuela, zegozkion atzerapenak aitortuz, gainera, frogatuta gelditu baitzen kexagileak ez zituela aipatutako garaje plaza alokatzeagatik jasotako hileko diru sarrerak. Dena den, erakunde autonomoaren desadostasuna atzerapenen eragin datan zetzan. Zehazki, Lanbidek horien zenbatekoa zehazteko Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 42. artikulua interpretatzeko moduan. Lanbideren iritziz, diru sarreraren aldaketa ekarri zuen egitatea izan zen kexagileak bankuko mugimenduak aurkeztea, baina Arartekoak uste zuen egitate eragilea izan zela garaje partzelaren alokairu kontratua amaitu izana.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 7koa.](#) **Ez da onartu.**

1.2. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen, **ez zegoelako ados Lanbidek diru sarrerak bermatzeko errenta gisa sartutako zenbatekoarekin.** Emateko ebazpenak hileko diru sarrera atipiko bat ezarri zion, 67,92 eurokoa. Lanbidek 2018ko martxoaren eta abuztuaren artean gertatutako kaleratzeagatik kalte ordain bat ezarri zuen. Herritar horrek 2018ko abenduaren 4an eskatu zuen diru sarrerak bermatzeko errenta, hau da, handik 5 hilabetera.

Arartekoak antzeko kexa ugari izapidetu ditu. Hain zuzen ere, kexa horietan ez daude ados Lanbidek *"prestazioa eskatu aurretik jasotako ezohiko diru sarrerei buruzko Instrukzioa"*, 2019ko maiatzaren 17koa, aplikatu ez izanarekin, instrukzio hori onesti aurretik diru sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak ziren pertsonen kasuan.

Erakunde autonomoak argudiatu du ezezkoa eman duela ezin delako arau bat atzeraeraginez aplikatu; hala ere, erakunde honek ez du planteatu aipatutako instrukzioa atzeraraginez aplikatzerik, baizik eta indarrean dagoenetik, diru sarrerak bermatzeko errentaren titular guztiei, salbuespenik gabe. Hau da, une horretan prestazioen titular zena eta gerora izan dena bereizi gabe. Horrek berekin dakar pertsonen eskubideen aldeko araudia aplikatzea eta interpretatzea bermatzea, eta hori ordenamendu juridikoak jasotzen du, araudiaren interpretazioa berdintasun printzipiora egokitzea eta gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen interesentzat mesedegarriagoak diren egoerak aitortzea baitakar.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 8koa.](#) **Erantzunaren zain dago.**

2. Diru sarrerak bermatzeko errenta ukatzea

2.1. Diru sarrerak bermatzeko errenta ukatzea Lanbideko bulegoak emandako informazioan gabeziak daudelako

Euskal emigratzaile batek kexa bat jarri zuen Arartekoan 1996tik aurrera Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) bizi ondoren Euskadira itzuli zelako eta bere familia unitatea inskribatzeko eskaria egin zuelako. Unitate hori berak, bere emazteak eta bere adingabeko bi seme-alabek osatzen zuten eta eskaria bere Gipuzkoako jaioterrian egin zuen eta diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko lehen eskaria egin zuen. Lanbidek ez zion esan ez zuela egiaztatu behar eroldako eta bizileku eraginkorreko hiru urteko aldia (**euskal kolektibitateetako itzulitako kide izaera zuelako**), eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaria ukatu zion. Ez zioten esan ezta ere itzulitako euskal biztanlearen ziurtagiria eskatu beharko zuenik Eusko Jaurlaritzako Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzan. Informazio hori jaso ez zuenez, Arartekoak Lanbideri gomendatu zion, alde batetik, prestazioaren ukatze ebazpena berrikusteko, eta beste alde batetik, itzulitako euskal emigrante gisa diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea aitortzeko eta orokorrean hobetzeko prestazio eskatzaileei diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duten xedapenetako betekizun juridikoei eta teknikoei buruz ematen zaien informazioa.

[Arartekoaren ebazpena, 2020ko otsailaren 25ekoa](#). Ez da onartu.

2.2. Diru sarrerak bermatzeko errenta ukatzea araudia modu estentsiboan interpretatzeagatik

Lanbidek herritar baten diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaria ukatu zuen **hedaduraz interpretatu zuelako** urtebetean prestazioa eskatzeko ezintasunari buruzko araudi aurreikuspena, izan ere, Lanbideren ustez, bere amarekin batera bizikidetzan unitatea osatzen zuenez diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izan zen eta prestazio hori iraungi egin zen ez zuelako jakinarazi seme bat izan zuela. Kexagilea adingabea zenean eta bere amak azpierreantatutako logela batean amarekin bizi zenean, haurdun geratu zen. Une horretan, bere amak horren berri eman zion Lanbideri, eta prestazioa azkentzea erabaki zuten, aurretiaz ez zuelako jakinarazi bere alabaren eta umearen aita izango zenaren arteko ustezko harremana. Azkentzearen ebazpen egunaren aurretik, kexagilea bere umearen aitaren etxera bizitzera joan zen, eta, ondoren izapidetu zuen kexaren hizpide den diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaria. Enpleguko erakunde autonomoak

eskaria ukatu zuen, aurreko azkentzetik ez zelako urtebete igaro. Arartekoak zalantzan jarri zuen amaren prestazio azkentzea, eta azpimarratu zuen araudian aurreikusita dagoela prestazioa jasoko dutela ordura arte titularra zen pertsonari zegokion diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzeak edo mantentzeak ageriko kalteak ekartzen badizkie bizikidetzaren unitateko gainontzeko kideei.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko irailaren 28koa](#). **Onartu da.**

3. Prestazioak iraungitzea eta etetea

3.1. Ibilgailu bat dohaintzan jasotzeagatik iraungitzea

Lanbidek ebatzi zuen bi adingabe bere kargu zituen guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bati aitortutako diru sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea, eta adieraztea bidegabe jasotako prestazio horien 5.795,31 € itzultzeko obligazioa, kexagilearen aitak mailegu bat sinatu zuelako auto bat erosteko, haren kuotak ordaindu zituelako eta hori egin ondoren titular gisa alaba jarri zuelako, kexagilea. Arartekoaren iritziz, Lanbidek erabilitako argudioek ez dute arauzko babesik, iraungitzea erabakitzeak kausa aurreikusien artean ez dauden jokabideei baitagokie; aitzitik, diru sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa bete beharreko obligazioei dagokie, frogatuta gelditu baita kexagileak ez duela inolako ibilgailurik erosi diru sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria jaso bitartean, eta ez duela inola mailegurik sinatu. Horregatik guztiagatik, erakunde honen iritziz, aurreko ibilgailuaren salmenta eta aitak ibilgailu berri bat oparitzea ezohiko diru sarrerei buruzko figuraren eta araudian figuraren sar daitezke, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak 20.1 artikuluan xedatzen duen moduan: Legezko figura hori aplikatzearen ondorioa izango litzateke 60 hilabetez diru sarrera gisa zenbatzea, eta, izatekotan, bizikidetzaren unitateak hileroko jaso beharreko diru sarrerak bermatzeko errenta kopurua murriztea, baina diru sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea eta urtebetez hura eskatu ezin izatea neurrigabekoa da eta ez du arauzko babesik.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 13a](#). **Ez da onartu.**

3.2. Iraungitzea legezko hutsune baten ondorioz araua interpretatzean desadostasun bategatik

Lanbidek erabaki zuen diru sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea, ezkontideak EAetik kanpoko lanak "kateatu" zituelako 12 hilabetez baino gehiagoz bost urteko epean. Horren arazoa da **araudiak ez duela jasotzen aztertutako kasua**. Ondorioz, Lanbidek interpretazio lanetan bete zuen zegoen legezko hutsunea, baina, hori egitean, EAetik kanpo modu iraunkorrean lanagatik lekualdatzearekin parekatzen zuen, hau da, 12 hilabetetik gorako banaketa batekin, eta kasu horretan araudiak aurreikusten du prestazioa iraungitzea. Beste behin, erakunde horren erabakiak hutsaldu egiten du arauaren helburua bera; izan ere, bizikidetzaren unitate bat

zigortzen du, zeinak ahalegina egiten duen bere diru sarrera propioak lortzeko, diru sarrerak bermatzeko errentaren onuradun gisa dagozkionetatik harago Arartekoak gogora ekarri zuen legezko hutsuneren bat dagoenean interpretazio elementu teologikoaren eta proportzionaltasun printzipioaren garrantzia.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko abenduaren 18koa](#). Erantzunaren zain dago.

3.3. Desadostasuna eduki ekonomikoko eskubide bat baliatu izanaren betekizuna interpretatzean

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzea erabaki zuen interesatuak ez zuelako baliatu bere seme-alabentzako elikagaien pentsioa jasotzeko eskubidea eta bere baliabideak ez zituelako modu arduratsuan erabili. Horri dagokionez, Lanbidek uste zuen interesatuak diru-sarrerak bermatzeko errentaren dirua dohaintzan eman zuela.

Arartekoak adierazi zuen espedientean jasotako dokumentazioa aztertuta zalantzazkoa zela interesatuak bere seme-alaben pentsio eskubidea baliatu ez izana, eta esan zuen pentsioa bi hilabetez ez ordaindu ondoren modu judizialean horren betearazpena eskatzea **Lanbideren interpretazio zorrotzegtik sortutako ondorioa zela** (erakunde horrek horren bitartez diru-sarrerak bermatzeko errentaren xedea hutsaltzen baitu). Era berean, eta kexagileak bere baliabideak arduraz erabili ez izana aurpegiratzearen inguruan honakoak adierazi behar dira: Arartekoak Lanbideri gogorarazi zion Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#) 77.2 artikularekin bat eginez, probaldia ireki beharko lukeela susmo batean oinarritutako erabakia hartu ordez. Beste behin ere berretsi zuen kontuan hartu behar direla adingabeen interes gorenak erabakiok umeei eragin diezaieketenean.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko ekainaren 5ekoa](#). Ez da onartu.

3.4. Desadostasuna bizikidetzaren unitate bat osatzen duten familiako harremanen edukiari buruzko interpretazioan

Lanbidek ukatu eta azkendu egin zituen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria, **ez zuelako jakinarazi bizi zen logela azpierretratzen zion pertsona bere amaren egungo bikotekidearen semea zela**.

Gomendioan diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudian aurreikusitako bizikidetzaren unitatea zabaltzea aztertzen da, eta ondorioztatzen da **araubide horrek ez duela babesten Lanbidek defenditu duen interpretazioa**. Odolkidetasun eta ahaidetasun mailen definizioa eta irismena ez dago jasota aplikatu beharreko

araudian. Horri dagokionez, esan behar da bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonak definitzen dituen dokumentu bakarra, bizikidetzaren unitateari buruzko aldaketak jakinarazteko betebeharraren ondorioetarako, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eskaera izapidetzean erabiltzaileei ematen dien informazio dokumentua dela. Dokumentu horretan, anai-arrebaordeak ez dira sartzen ezkontza ahaidetasunezko harremanen atalean. Araudi horrek dio eskatzailearen bizikidetzaren unitateko kide hartuko direla 2. mailara arteko ezkontza ahaidetasunezko harremana duten hauek: *“Eskatzailearen bikotekidearen gurasoak, seme-alabak, bilobak eta anai-arrebak”*. Erreferentziako pertsona, hortaz, beti da eskatzailea eta bere bikotekidea. Arartekoak adierazi nahi du Kode Zibilean ezartzen eta arautzen direla kategoria horiek, baina ez dago jasota ahaidetasunaren inguruko aurreikuspen espezifikorik. Legezko definiziorik ez dagoenez, doktrinak dio ezkontza harremana dela pertsona bat bere ezkontidearen odol ahaideekin lotzen dituen. Zentzu horretan, orokorrean onartzen da ezkontza harremana subjektuaren eta ezkontidearen ahaideen artean dagoela, eta ez ezkontzako kide bakoitzak bere aldetik eta ezkondu aurretik izan dituen seme-alaben artean. Arartekoak **araudia aldatzea** gomendatzen du, izan ere, egungo bizikidetzaren unitatearen eraketari buruzko aurreikuspenak familia harremanen eta betebeharraren ekonomikoaren hedadura handiegia du, eta beste arautegietan ez da horrela.

Lanbidek ez du onartu espediente horretako etetea berrikusteko eta prestazioak itzultzeko egindako gomendia, baina adierazi du hurrengo araudi erreforma egitean, kontuan hartuko dituela bizikidetzaren unitatearen hedapenari buruz egindako oharra.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko ekainaren 24koa](#). **Ez da onartu.**

3.5. Lortu ezinezko dokumentu eskaerak

Lanbidek 69 urteko emakume bati diru sarrerak bermatzeko errenta iraungi zion, bere bi biloben jagoletza zuenari, ez zuelako aurkeztu biloben ondasunen inbentarioaren kopia zehatza, aurretik epaitegian aurkeztu zuena. Eskatutako ondasunen inbentarioa egitatezko jagoletzaren espediente judizialean txertatuta zegoen, eta, ondorioz, kexagileak Lanbideri azken horren testigantza eman zion, edozein kasutan baliabiderik eza frogatzen zuena. Kasu honetan, Arartekoak Lanbideri gogorarazi zion **administrazioak ezin duela era arbitrarioan edozein agiri eskatu**; aitzitik, ebazpena emateko oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko ezinbestekoak direnak soilik eskatu ahal ditu. Halaber, gogorarazi zion adingabearen interes gorena aintzat hartu behar dela haurrei eragiten dieten erabakiak hartzerakoan.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko uztailaren 14koa](#). **Ez da onartu.**

3.6. Akatsak aurkeztutako dokumentuak interpretatzean

Diru sarrerak bermatzeko errentaren titularraren espedientea berrikustean, Lanbidek eskatu zuen kontuen egoerari buruzko banku egiaztagiriak aurkezteko, egungo saldoarekin eta azken 6 hilabeteetako batez besteko saldoarekin, baita azken 6 hilabeteetako mugimenduen agiria ere. Interesdunak modu eta garai egokian aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa, zehatzago, Marokoko "Banque Populaire du centre Sud" erakundearen egiaztagiri bat, aipatutako saldoak Marokoko dirhametan agertzen zirenak. Lanbidek prestazioetarako eskubidea iraungitzat jo zuen, iritzi ziolako diru sarrerak edo ondarea ezkutatu zela, eta, haren aburuz, baimendutako gehieneko ondarea baino handiagoa zuelako, hau da, diru sarrerak bermatzeko errentaren gehieneko zenbatekoa halako lau. Lanbidek akatsa egin zuen iriztean prestazioen titularrak eskatutako kontuan zeudela frogatutako saldoak eurotan zeudela, egiaz Marokoko dirhamak zirenean. Halaber, garbi dago ez zetorrela bat iraungitzea ebazteko jasotako arrazoiaren –kontua ustez ezkutatu izana– eta haren aurka jarritako errekurtsua ezesteko arrazoiaren artean –diru sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izateko ondasunen muga gainditzea–. Tamalez, interesdun beraren geroko eskaera batean, Lanbidek beste behin ukatu zituen prestazioak, arrazoi berdina argudiatuz, hau da, "Titularrak eta/edo bizikidetzaren unitateko kideek etekin handiagoak dituztela *kide kopuruaren eta bizikidetzaren unitatearen arabera egokitu dakiekeen hileko zenbatekoa baino*". Adierazi beharra dago eskubidea iraungitzea justifikatzeko argudiatutako kausa, hau da, kontu baten titulartasuna ezkutatu izana, ez dagoela 18/2008 Legearen 28. artikuluan jasotako iraungitzeko kausen artean eta, gehienez, 19. artikuluan jasotako eginbeharrak ez betetzeagatik etetea ekarri ahalko lukeela. Edozein kasutan, ebazpenak ez zion inolako erreferentziarik egiten ustez hautsi den legezko manuari. Beraz, **arrazoi nahikorik gabeko ebazpen** bat izango litzateke, ez baitzuen berariaz aipatzen zein manutan oinarritzen zen eta, gainera, ez zuen baitzuen legezketasun printzipioa errespetatzen, iraungitzea zekarren egitatea edo inguruabarra –kontu korrontearen titulartasuna adierazi ez izana– ez dagoelako sartuta ezarritako iraungitzeko ezein kasutan. Eskaera ukatzeko kausa objektiboa ere ez zegoen.

Arartekoak gomendatu zuen diru sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak iraungitzeko ebazpena berrikusteko, baita geroko eskaera berria ukatzekoa ere.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko ekainaren 17koa](#). **Ez da onartu.**

4. Diru sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren bidegabeko prestazio ekonomikoak erreklamatzeari buruzko dokumentazioa eta betekizunak

4.1. Etxebizitzari buruzko dokumentazioa eta betekizunak

Lanbidek adierazi zuen etxebizitzarako prestazio osagarriagatik bidegabe jasotako prestazioak itzuli behar zirela, iritzi baitzion ez zela frogatu errentamendu kontratua inskribatuta zegoenik Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan, eta desadostasunak topatu zituztelako errentamendu kontratua jasotakoaren eta azkenean alokairua ordaintzeko moduaren artean. Arartekoaren iritziz, errentamendu kontratua erregistroan inskribatzea **ez da errentariari eska dakioken betekizun** bat, baizik eta, izatekotan, etxebizitzaren errentatzaileari eskatu beharrekoa. Alokairuaren ordainketak egiteko moduari dagokionez, Arartekoak ikusi du kexagileak egiaztatu duela etxebizitzarako prestazio osagarria bete-betean etxearen hileko errenta ordaintzeko erabili duela, bai eta etxebizitzarako prestazio osagarria erregulatzen duen araudian onartutako bitartekoak erabiliz egiaztatu ere.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko urriaren 22koa](#). Erantzunaren zain.

4.2. Premiamendu bidean jasotako prestazioen erreklamazioa: jakinarazpen akastuna

4.2.1. Pertsona bat bere Lanbideko bulegora joan zen, jakin zuenean bere banku kontutik zenbateko bat enbargatu zitzaiola. Bertan, ebazpen baten kopia eman zitzaion, zeinean Lanbidek erreklamatzeko zizkion bidegabe jasotako diru sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak. Betearazpen bidera igorri ondoren, zenbatekoa 12.969,20 eurora heldu zen. Pertsona horrek laneko jardura bat hasi zuela jakinarazi ondoren ere Lanbidek ordaintzen jarraitu zituen prestazioak ziren.

Kexagileak, urte horretara arte diru sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra zenak, argudiatu zuen ez zuela aurretik komunikaziorik jaso, ezta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailak horretarako bidalitako premiamendu probidentziarik ere.

Itzulketa prozedurak hasi izanaren eta ebazpenaren jakinarazpenak, bi-biak, kexagilearen aurreko bizilekuan egiten saiatu ziren. Etetea jakinarazi zenetik, 2013ko azaroaren 23tik, ez da diru sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular, eta bizilekua aldatu zuen 2014ko otsailean. Egoera hori, adierazi duenez, bere erreferentziazko bulegoan jakinarazten saiatu zen. Dioenez, esan zioten diru sarrerak bermatzeko errentaren titular ez diren pertsonak ez zituztela etxebizitza aldaketak jakinarazi behar. Halaber, nahitaezko itzulketa xedatu zuen ebazpenaren jakinarazpena egiten behin bakarrik saiatu zen, eta,

horren ondoren, BOEn argitaratu zen eta, beraz, eragin guztiak izan zituen. Hala ere, Correosek egindako hartu-agirian, "ezezaguna" laukitxo aipatzen da bi ebazpenen jakinarazpena entregatzeko ezintasunaren arrazoi gisa. Nahiz eta Posta Zerbitzu Unibertsalaren eta Posta Zerbitzuen Liberalizazioaren uztailaren 13ko 24/1998 Legea garatuz Posta Zerbitzuak emateko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 3ko 1829/1999 Dekretuaren 43. artikulua kasu hori jasotzen duen bigarren jakinarazpen bat ez saiatzeko kausen artean, Arartekoaren iritziz, jakinarazpena arrakastaz ezin izan zen egin pertsona hori ordurako ez zelako bizi Lanbideren datu baseetan jasotako helbidean. Erakunde honen ustez, hartzailea "ezezaguna" izatea, kasu horietan, pertsona horien orduko helbidea ikertzen jarraitzeko beste arrazoi bat dela interpretatu behar da. Izan ere, jakinarazpena bizilekuan egitea ezinezkoa denean, jurisprudentziak eskatzen du (besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 2ko 158/2007 Epaiak) gutxieneko ikerketa jarduera bat egitea bulego eta erregistro publikoetan, itzultzera behartuta dagoenaren egungo helbidea zein zen zehazten saiatzeko.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko martxoaren 9koa. Ez da onartu.](#)

4.2.2. Herritar batek jakin zuen zor bat zuela Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailak bere banku kontu bat enbargatu zuelako. Bidegabe jasotako prestazioengatik sortutako zorra 7.319,96 eurokoa zen, eta premiamendu bidea igorri ondoren 9.534,87 eurora igo zen. Jakinarazpenetarako helbidea, itzulketa ebazpenean jasotakoa, kexagilea 2014ra arte bizi izan zen etxebizitza zen, une horretan, behin hartzaile izateari utzitakoan, etxebizitza aldatu baitzuen.

Kontuan hartuta diru sarrerak bermatzeko errentaren titular izan ondoren etxebizitza aldaketa jakinarazteko betebeharra ez dagoela araudian jasota, Arartekoaren iritziz, Lanbidek erakunde autonomoarekin harremana izateari uzten zioten pertsonari jakinarazi behar ziekeen etxebizitza aldaketaren berri eman behar zutela, bai eta idatziz eta berariaz jakinarazi ere, eta adierazi beharko ziekeen epe jakin bat dagoela espedientea berrikusteko eta, ordaindu ezean, itzulketa prozedura bat irekitzekoa ere bai.

Halaber, jakinarazpenak kexagilearekin bat ez zetorren etxebizitza batera bidali ziren, inongo ikerketa jarduerarik egin gabe, aurretik adierazitako jurisprudentziak eskatutakoaren kontra. Aldizkari ofizialeko jakinarazpenak fikzio legaleko izaera du, egiazko jakinarazpenarena baino gehiago, eta, beraz, administrazioak eskuragarri dituen zentzuzko aukera guztiak erabili behar ditu jakinarazpenaren hartzailea topatzen saiatzeko. Honako hau gogorarazi beharra dago, beraz, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41,4. artikuluan jasotako ahalmenaren arabera: *"Ofizioz hasitako prozeduretan, prozedura hasteko baino ez, herri administrazioek, Estatistikako Institutu Nazionalaren datu baseetan kontsulta eginda, udal erroldan jasotako interesdunaren egoitzari buruzko datuak eskuratu ahal izango dituzte, toki*

erakundeek igorritakoak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoa betez."

Legez ezarritako prozedura bete ez duen jarduketa administratiboaren jakinarazpenaren aurka egin daiteke betearazpen bidean ere, EAEko Ogasun Nagusiaren Diru Bilketako Erregelamenduan aurreikusitako moduan.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren iritziz, Lanbidek berrikusi egin beharko luke orain arte erabilitako itzulketa prozedura, jakinarazpen prozesuan hautemandako gabeziak tarteko, eta espedienteak, beraz, erreklamazioaren hasierara eraman beharko luke, 2014ko martxora, azken finean, preskripzioaren figura juridikoa aplikatu beharko bailuke, itzulketa prozedura berria irekitzeko dataren aurreko 4 urteko aldia gainditzen dutenentarako.

[Resolución del Ararteko de 8 de mayo de 2020.](#) **Ez da onartu.**

4.3. Jasotako prestazioak premiamendu bidean erreklamatzeari: gabeziak iraungitze ebazpenetan jasotako informazioa

Herritar batek Arartekoan kexa bat aurkeztu zuen, ez zegoelako ados diru sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriaren itzulketa espedientearen bidez betearazpen bidera igortzearekin. Zorraren hasierako zenbatekoa 16.312,75 eurokoa zen, eta, betearazpen bidera jo ondoren, 17.947,73 eurora igo zen. Zorra eragin zuen arrazoia zen bere bizikidetzaren unitatean laneko diru sarrerak jaso izana; Lanbideren ustez, diru sarrera horiek ez zituen kontuan hartu 2013an kexagileari diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortu zizkionean.

Itzulketa nahitaezkoa zela ezarri zuen ebazpenean, Lanbidek kexagileari jakinarazi zion 160,66 euro gutxiago emango zizkiola hilean. Interesdunak berariaz onartu zuen, "Nomina konpentsazioak onartzea" formularioaren bidez, geroko nominetan kuota hori kentzea. Nolanahi ere, inolako kuotarik kendu ahal izan aurretik, enpleguko erakunde autonomoak interesdunari prestazioak iraungi zizkion, horien titular izaten jarraitzeko gehieneko diru sarrerak gainditzen zituelako, inolako informazio gehiagorik eman gabe. Bi urte geroago, 2018ko uztailean, kexagileak premiamenduzko probidentziaren jakinarazpena jaso zuen. Nahiz eta gaur egun prestazioak itzultzeko ebazpenek honako hau jasotzen duten: "Ordainketa hori adierazitako epean egiten ez bada, betearazpen bidera joko da", orduan diru sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko ebazpenetan ez zen inolako aurreikuspenik azaltzen ordainketa osoa egin aurretik prestazioaren titular izateari uzteko kasuetan jarduteko moduen inguruan. Arartekoaren ustez, enpleguko erakunde autonomoaren jarduteko era hobetu egin daiteke oraindik, ebazpenean aurreikusitako itzulketa modua, kexagileak ordura arte hilero jasotzen zuen kuota jaisteak, ezinezkoa bihurtu baitzen, eta orduan Lanbidek berariaz jakinarazi behar baitzion diru sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungi ondoren zorra ordaintzeko modua. Hori dela eta, Arartekoak Lanbideri gomendatu zion premiamendu bidera jo izana baliogabetzea.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko otsailaren 11koa.](#) **Onartu da.**

4.4. Alokairua ordaintzen dela justifikatu delako bidegabeak ez diren etxebizitzarako prestazio osagarriagatik ordaindutako prestazioen erreklamazioa

Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarri bat eten zuen titularrak zegokion epearen barruan ez zituelako aurkeztu alokairua ordaintzen zuela frogatzeko ordainagiri guztiak. Dena den, bidegabeko prestazioak sortuko zirela aurreikusitu zuen eteteko ebazpena jakinarazi eta egun gutxira, kexagileak bere Lanbideko bulegoan aurkeztu zuen falta zitzaion dokumentazioa eta, horrenbestez, hortik aurrera, frogatu zuen etxebizitzarako prestazio osagarriagatik jasotako zenbatekoak bere etxebizitzako hileko alokairua ordaintzeko erabili zituela.

Ebazpenean aitortzen da Lanbidek ondo jokatu zuela prestazioa etetean, ezarritako epean ez zirelako aurkeztu alokairu errenta ordaindu izana frogatzeko ordainagiriak, baina ez dago ados zorra egotearekin, ordainagiriak ordaindu izana frogatu baitu. Hain zuzen, itzulketa ebazpena eman aurretik ere, kexagileak aurretik atxiki ezin izan zituen dokumentazioak aurkeztu zituen, eta, horrenbestez, ez da egiaztatu diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa bidegabe jaso zuenik, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikuluan aurreikusitako moduan. Beste behin, erakunde honen arabera, prestazioen erreklamazioa birpentsatu beharko litzateke, izan ere, betekizunak betetzeari utzi zaionean soilik erreklama daitezke prestazioak, edo, bestela, interesdunei aitortutako zenbatekoa aldatu behar zaienean, hura kalkulatzeko kontuan hartutako egoera aldatu delako.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 14koa](#). Ez da onartu.

4.5. Erreklamazio ekintza preskribatzea

4.5.1. Lanbidek adierazi du diru kantitate jakin bat itzuli behar duela diru sarrerak bermatzeko errentagatik eta etxebizitzarako prestazio osagarriagatik, diru sarreren eta ondarearen aldaketak epean ez komunikatzeagatik eta gizarte, ekonomia, familia eta lan egoerari eta abarri buruzko datuak ezkutatzegatik. Erreklamazio prozedura hasi zela 2017ko apirilaren 7an jakinarazi zen, eta erreklamaturako prestazioak 2011ko uztailetik 2012ko martxora arteko tartean ordaindu ziren.

Kexagileak frogatu du 2012ko otsailean, 2012ko maiatzean eta 2013ko otsailean, alokairu errentei eta lan harremanaren hasierari buruzko dokumentazioa aurkeztu zuela; beraz, uler daitezke data horretan jakin zuela administrazio eskudunak itzultzeko betebeharra eragin zuen gertakariaren berri. Arartekoaren aburuz, ulertu behar da preskripzio epearen zenbaketa (*dies a quo*) hasi zela administrazioak itzulketa betebeharra eragin zuen egitatea ezagutu zuenean (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 58.2. artikulua); beraz, igaro da EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 44. artikuluan jasotako epea. Lanbidek informazio eskaerari erantzunez bidalitako txostenean ez da aipatzen etete ondorioak dituen ebazpenik, salbu eta 2014an jakinarazpen bat bidali zela, zeinak Arartekoaren iritziz ez duen etete eraginik.. Arartekoaren ebazpenean gogorarazi egin da

preskripzioaren figura juridikoaren garrantzia eta Espainiako Konstituzioko 9.3. artikuluko segurtasun juridikoaren printzipioarekin duen lotura, hura zuzenbide estatu bateko funtsezko balioetako bat baita. Gainera, Arartekoak beste ebazpen batzuetan aztertu ditu berrikusteko ahalmenaren mugak, epe luzeegi bat igaro izanak aukera ematen duenean ulertzeko ekintza preskribatu egin dela, eta, Arartekoaren ustez, administrazio onerako eskubidearen ondoriozko betebeharren aurka jokatu zela.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko irailaren 24koa. Ez da onartu.](#)

4.5.2. Lanbidek pertsona bati erreklamatu dio itzultzeko 3.185,10 euroko zenbatekoa, 2012ko urtarrilaren eta 2012ko urriaren arteko tarteari dagokiona. Arrazoiak diru sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea etetea erabakitze berberak dira. Aipatutako ebazpenagatik aurkeztutako errekurtsioa baietsi egin zen eta, ondorioz, kexagileari ordaindu egin zion prestazioaren ordainketa legeko arrazoirik gabe eten zuen hilabetei dagokien zenbatekoa. Hori guztia gorabehera, prestazioak erreklamatzeko prozedura bat hasi zuen 2017ko maiatzaren 5ean, arrazoi berberekin, nahiz eta ez zegoen titulu exekutiborik prestazioak erreklamatzeko prozedura bat hasteko, etetea baliogabetu egin zelako. Lanbidek bidalitako informazioan hainbat inkongruentzia ageri dira, Arartekoaren ustez babesgabetasuna eragiten dutenak eta beren kabuz nahikoa direnak berrikuspen prozesuari ekiteko. Bestalde, kexagileak 2012ko ekainaren 4an jakinarazi zuen kotizazio gabeko prestazioa onartu zitzaiola, eta Lanbidek 2017ko maiatzaren 5ean hasi zuen bidegabe jasotako prestazioak erreklamatzeko prozedura; beraz, lau urte baino gehiago igaro dira Lanbidek kexa eragin zuten gertaeren berri izan zuenetik. 2014ko irailean erakunde publiko horren zor baten berri eman bazion ere, Arartekoaren ustez jakinarazpen hori ez da baliozkoa preskripzio epea eteteko, hortik ez baita ondorioztatzen zuzenbidean baliozkoa den eta prestazio publikoak itzultzeko araudia betetzen duen ebazpen bat, hortaz, preskripzioaren ezarpen juridikoa aplikatzen baita.

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko irailaren 30ekoa. Ez da onartu.](#)

4.5.3. Lanbidek bizikidetzaren unitate bati eskatu dizkio 2012ko martxotik azarora arte jasotako prestazioak lau urte igaro ondoren hasi zen prozedura baten bitartez, eta araudiak epe hori zehazten du erreklamazioa egiten hasteko ([Euskadiko Ogasun Nagusiaren Printzipio Aurtzaileen Legearen 44.1 artikulua](#)), eta **beraz, erreklamazio ekintza iraungita dago**. Bestalde, kexa espedientean ez dago jasota eskaera egiteko arrazoirik zegoenik, izan ere, Lanbidek ez zuen inolako dokumentaziorik edo azalpenik aurkeztu benetan zorra existitzen zela egiaztatzeko. Arartekoak Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai bat aipatu zuen, [Čakarević Kroaziaren aurka](#); bertan, berrikuspen eskumenaren mugak eta administrazio on bat izatearen eskubidea aztertzen ziren eta Europako Batzordeak estatu kideei

zuzendutako gomendia ([Recommendation CM/Rec\(2007\)7](#) of the Committee of Ministers to member states on good administration) aipatzen zen; horren bidez, zenbait printzipio eta estandar proposatzen ziren, eta horien artean zeuden proportzionaltasun printzipioa edo arrazoizko epe batean jarduteko beharra eta gardentasunez jokatzeko betebeharra. Arartekoak Lanbideri gomendatu zion berrius zezala prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen duen ebazpena

[Arartekoaren Ebazpena, 2020ko maiatzaren 20koa](#). **Ez da onartu.**

Gomendio orokorrak

1. [Arartekoaren 3/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko ekainaren 12koa](#).

Gizarte-larrialdietarako laguntzen bateragarritasuna diru-sarrerak bermatzeko errenta eten eta iraungitzearekin.

Arartekoak gomendio orokor hau egin du **erabiltzaileek gizarte larrialdiko laguntzak eskatzean udaletako gizarte zerbitzuetatik jasotzen dituzten erantzunak aztertze**ko, izan ere, kasu batzuetan jakinarazi zitzaien gizarte larrialdiko laguntzak ukatu egingo zitzaizkiela diru-sarrerak bermatzeko errenta edo diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko betekizunak betetzen zituztelako, eta hori albo batera utzita horien kudeatzaileak, hau da, Lanbidek, prestazio horiek eten edo iraungi izana. Dirudienez, ez lirateke kontuan hartuko ezta ere inguruabar hauek: etenaldien iraupena, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskaerei beharrezko denboran ez erantzutea, ezta etete edo iraungitze ebazpen baten aurrean aukerako berraztertze errekurtsua ebazteko zain egotea.

Arartekoak informazioa eskatu zuen 21 udaletan eta Arabako Foru Aldundian, izan ere, Arabako udalerrri gehienek gizarte larrialdiko laguntzen kudeaketako eskumenak eta funtzioak foru administrazio horri eskuordetu baitizkiote.

Erakunde honetan egindako azterketan udalek azaldutako arazo horiei emandako erantzunak jasotzen dira eta udaletako gizarte zerbitzuek gizarte bazterketa egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonen eman beharreko arretan duten zereginaren inguruan eta aurrekontu kontsignazioa, gizarte larrialdiko laguntzen izaera edo Lanbiderekin dagoen lankidetzaren kontuan hartuz, gizarteratzea sustatzearen inguruan hausnartu da. Arartekoak ondorioetan honakoak azaldu ditu, besteak beste: gizarte larrialdiko laguntzen araubidea askotarikoa eta konplexua da, izan ere, kontzeptu zehatzak eta askotarikoak ezartzen ditu eta diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria/gizarte larrialdiko laguntzaren titularrentzako bateragarriak diren eta ez diren zenbatekoak ezartzen ditu, urtero araubide espezifikoak argitaratzea eskatzen du, eta askotariko erakundeetako eta sailetako mailek esku-hartu behar dute, erakundeen artean eta

barnean, urtero erabiltzen diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak handiak direlarik. Gomendioan azaltzen da garrantzitsua dela udaletako gizarte zerbitzuen eta Lanbideren artean koordinazioa eta lankidetzaren egotea, hala bermatzeko kolektibo horri zuzendutako administrazio jarduketak eraginkorrak direla. Txostenaren bukaeran EAeko udalei gomendatzen zaie gizarte larrialdiko eskariak izapidetzean modu indibidualizatuan egiaztatzeke ea **beharraren egoera erreal eta larrialdikorik dagoen eta ea laguntza horiek egokiak diren egoera konpontzeko**, betiere, adingabeen interes gorenaren kontuan hartuz. Arartekoak, gainera, udaleko gizarte zerbitzuek bizirauteko diru-sarrera ekonomikorik edo etxebizitzarik ez duten pertsonekin lan egitean dituzten zailtasunak azaltzen ditu, izan ere, egoera horretan zaila da gizarte zerbitzuek beraien benetako funtzioa den gizarte esku-hartzea gauzatzea, hau da, elkarrekintzarekin eta gizarteratzeko laguntzarekin zerikusitu gehiago duena; are gehiago Sars-Covid-19 koronabirusaren ondorioz sortutako osasun krisia dela-eta ezarritako neurrien inpaktua kontuan hartuz. Egoera horren guztiaren ondorioz, agerian geratu da garrantzitsua dela udaletako gizarte zerbitzuak sendoak, biziak eta hurbilekoak izatea familia eta pertsona zaurgarriei arreta egokia emateko.

2. Arartekoaren 1/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko maiatzaren 13koa.

Prestazio ekonomikoen titularra izateko, jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikorik ez izatearen ziurtagiria aurkezteko eskakizunaz hausnartu behar da.

Arartekoak kexa asko jaso ditu **hainbat atzerritarrek nekez bete dezaketelako** euskal herri administrazioek (batez ere Lanbideak eta udal batzuek) kudeatzen dituzten prestazio ekonomikoak eskatzean jartzen zaien baldintza bat: hain zuzen, **jatorrizko herrialdean ondasunik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztea**. Hori egitea oso zaila edo ezinezkoa da kasu batzuetan. Aplikatu beharreko esparru juridikoa aztertu ondoren, erakunde honek ondorioztatu du araudian aurreikusita dagoela prestazio ekonomikoen eskatzaile guztien ondasunak eta baliabide ekonomikoak zenbatu behar direla egiaztatzeke ea baliabide ekonomiko nahikorik ez izatearen betekizuna betetzen duten, baina, hala ere, araudi horretan ez dago xedatuta zein den hori egiaztatzeke aurkeztu beharreko agiria. Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen agiri zehatz bat eskatzean, hau da, bestelako proba bitartekorik baloratu gabe eta diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte larrialdiko laguntza jasotzeko eskubidea izateko ezinbesteko agiririk izan gabe (conditio iuris baldintza ez betetzeagatik), erakunde honek **bere egokitasunaren inguruan edo araudiz kanpoko nazioarteko akordioak sinatzearen aukeraren inguruan hausnartu du**, Nazioarteko Tratatuaren eta Akordioaren Legea aplikatuz. Gomendio eta ondorio horiek are garrantzitsuagoak dira Sars-Covid 19 koronabirusaren hedapenaren ondorioz sortutako osasun krisialdi egoeran, izan ere, gehitu egin dira jatorrizko herrialdeetan dokumentazioa jasotzeko eta eskuratzeko arazoak.

Ofiziozko jarduerak

Diru sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko prozeduraren bermeak, lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesuetan parte hartzea ez onartzeagatik edo enplegu bati uko egiteagatik.

Arartekoak ofiziozko jarduera hasi zuen 2018an diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko prozeduraren inguruan; zehazki, **lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesuetan parte-hartzea ez onartzeak edo lan-eskaintza bati uko egiteak** sortu du prestazioa iraungitzea. Eskakizun asko egin arren, Lanbidek ez zion erantzun informazio eskariari, eta, beraz, Arartekoak lankidetzan aritzeko legezko betebeharra gogorarazi behar izan zuen; betebehar hori Arartekoa sortzen eta arautzen duen Legean aurreikusita dago, hain zuzen ere, [otsailaren 27ko 3/1985 Legearen](#) 24. artikuluan. Egoera hori konpondu ez zenez, erantzuteko eskatu zion Arartekoak. Administrazio prozeduraren bermeetan eragiten duen ofiziozko jarduketa baten izapidetzean Arartekoaren zereginak oztopatzen direnean kezka sortzen dira, hain zuzen ere salatzen dena diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea iraungi zaien pertsonak sufritzen duten babesgabetasuna baita.

Arartekoak jarduketa bukatzeko gomendio bat bidali zuen Lanbidera ([Arartekoaren 2020ko maiatzaren 7ko Ebazpena](#)), berme guztiekin jakinarazteko hautaketa prozesuan parte-hartzearen betebeharra, edo, hala dagokionean, lan eskaintzaren edukia eta eskaintzen diren lan baldintzak, eta, horrez gain, jakinarazteko zeintzuk diren hautaketa prozesuan parte ez hartzearen edo enplegua ukatzearen ondorioak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubideari dagokionez, betiere, horiek justifikazio arrazoirik gabe eginez gero. Gainera, Arartekoak proposatu zuen espedientean modu frogagarrian azaltzeko diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrari eta bizikidetzaren unitateko kideei emandako informazioa eta jakinarazpen saiakerak eta interesatuek alegatutako ondorioak enplegua ukatzeko edo hautaketa prozesuan ez parte hartzeko. Horrez gain, proposatu zuen hobetzeko informazioa eta hizkuntza eskuragarritasuna, Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politika Sailari 2017ko txosten-diagnostikoan eta [Arartekoaren 2009ko martxoko Gomendio Orokorrean](#) *Etorkinei beren eskubideez baliatzean laguntzeko, administrazioaren ardura zerbitzu publikoen hizkuntza erabilgarritasunaren bermeari dagokionez*. gaiari buruz adierazitako terminoetan.

Erantzun formalik jaso ez den arren, komunikabideek Arartekoaren aurreko ebazpenari buruzko berria eman zuten eta adierazi zuten Lanbidek esan zuela dei guztiak grabatuko zituela, zalantzarik egon ez zedin lanpostuak ukatzeari zegokionez eta prozedura berme guztiekin egin zedin. Aipatu moduan, Arartekoak ez daki neurri horiek martxan jarri diren edo ez, ez baitu erantzun formalik jaso.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoa

ararteko

Herriaren Defendatzailea

Defensoría del Pueblo